

Izadian katenariak agerraldi urria
duenez, pentsatu behar da **ezen**,
kasu horretan, Gaudí areago
inspiratu **zela** giza jarduerako kable
eta sokei so eginez.

Wagensberg, Jorge: *Formen matxinada*, ZIO bilduma,
EHU, 2007 (euskaratzailea, Juan Garzia).

(ezen)... -eLA

Izatez, aukerakoa da halako perpausetan
EZEN, ez baitu aldatzen zentzua.

Esaldi konplexuetan, hala ere, funtzionala gerta daiteke, zuhur erabiliz gero.

Kasurik nabarmenena: perpaus osagarriaren hasieran tartekia datorrenean, garbi gera dadin osagarri horrekin doala tartekia:

- ...pentsatu behar da ezen, kasu horretan, Gaudí areago inspiratu zela giza jarduerako kable eta sokei so eginez.
- ...pentsatu behar da, kasu horretan, Gaudí areago inspiratu zela giza jarduerako kable eta sokei so eginez.

Adibide honetan, luzeagoa da tartekia:

- Azterketa batzuek erakusten dute **ezen**, aurrez etsai izandako bik elkarrekiko lagunkiro jokatzeko dutenean, lasaitasun-seinaleak agertu ohi **dituztela** beren jokabidean, tentsioa baretu den adierazgarri.

Hauser, Marc D.: *Gogo basatiak*, ZIO bilduma, EHU, 2008 (euskaratzailea, Irene Aldasoro).

Halako tartekirik ez dator, baina perpaus-hasieratik urrun dago

-eLA menderagailua adibide honetan:

- Argigarri da ohartzea **ezen** elur-maluten formaz arduratu zen lehen zientzialaria, nor, eta Kepler izan **zela**, XVII. mendearen hasieran.

Wagensberg, Jorge: *Formen matxinada*, ZIO bilduma, EHU, 2007 (euskaratzailea, Juan Garzia).

Aurreko arrazoiez gainera (tartekiak, osagarriaren luze-konplexutasuna, **-eLA** markaren urruntasuna), badira beste batzuk testuinguru batzuetan **EZEN** erabiltzea justifikatzen dutenak:

- perpaus nagusiaren eta perpaus menderatuaren arteko osagaiak zeini dagozkion garbi ez geratzea
- perpaus osagarria datorrela bestela hasieratik garbi ez geratzea.

Hurrengo bi orrietan, zenbait adibide bildu ditugu ZIO bildumako *Eder behar du* liburutik.

- Edaritegi dotoreoi izena zientzialari bikainarengandik ez badatorkie ere, haien atari gaineko idazkunek gogorarazten digute EZEN Berlin, duela mende bat, Europako hirietatik bizkorren hazten zena eta aberatsena ez ezik, fisikaren hiriburua ere bazela.
- Planck-ek hogeita bat urte zituela, fisika ez aukeratzeko aholkua eman zion Von Jolly-k, esanez EZEN, termodinamikaren bi legeak aurkitu ondoren, fisikari teorikoentzat geratzen zen zeregin bakarra artean lotzeke zeuden hari-muturrak lotzea zela.
- Planck-en ikerketa-aholkularietariko batek frogatua zuen jadanik EZEN, zeinahi ere zatekeela erradiazio-intentsitatearen legea, ez zegokeela loturik, ez barrunbearen tamaina ez formarekin, ez eta hormak eginak ziren materialarekin ere.

- Gogo txarrez ondorioztatu zuen EZEN barrunbe-erradiazioa ulertzeko modu bakarra, hain zuzen, atomoak bazirela onartzea eta Boltzmann-en pentsamolde estatistikora biltzea zuela.
- Erradiazio-kuantuen inguruko bere ideiak ordurako eztabaidagai izanik, aurrerago eraman zituen ideiak, arrazoiturik EZEN, elektroien batek bezala, kuantu orok norabide zehatz batean bidaiatzen duela: hizkuntza teknikoan, baduela momentua.
- Hasieran, itxaropen handia zuen EZEN uler zezakeela barrunbe-erradiazioa hartarako atomoen existentzia onartu beharrik izan gabe.
- Hala ere, aditu guztiak bat datoz EZEN Planck zuzen zebilela h bere konstante berriari garrantzia ematean.

Perpaus osagarriaren hasiera-hasieran
kokatzen da **EZEN**, mugarri gisa, perpaus
osagarria datorrela adieraziz eta hura non
hasten den erakutsiz.

Ohikoak dira literatura-tradizioan halakoak:

ezen, eze, ze
ezi (*Batez ere Zub.*)

EZEN forma hobetsi du Euskaltzaindiak euskara
baturako.

- Antistenes filosofoak entzun zuenean **ezen** jende gaixto batzuk haren laudorioz **zeudela**, erran zuen, tristura handi batekin:

—Ha, jainkoak, zer egin ote dut nik?

P. Axular, *Gero*, 1643

moldaturik

- *Azkenez, jakin beozu, **ze**, zelakoa dan bizitzea, alakoa **dala** eriotzea.*

P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 1802

- *Esan dau **eze** biar dantzaz egin bearko **dozuela**.*

Tx. Agirre, *Kresala*, 1906

- *Pentsatzen juat **eze**, onek eibartarrok, ifrañuko Patxi bera baño gorriak **dirala**.*

J. San Martin, *Zirikadak*, 1960

Hiztegi batuan:

eze h. ezen

Ahozkoan eta herri-kutsuko prosan, ohikoa da **(E)ZE** aldaera,
Mendebaldeko euskaran:

Esa(n) eustan **ze...** -ELA
Uste neban **ze...**

Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea: *Euskal Gramatika Lehen Urratsak (Mendeko perpausak-1)*, Euskaltzaindia, 1999 (162.-165. or.)

Garzia, Juan: *Joskera lantegi*, IVAP, 1997 (234.-237. or.)